

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 240/2020 Foru Agindua, maiatzaren 27koa, onesten duena helbideratutako zerga diru sarreraren 2020ko egutegia aldatzea

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 27ko 695/2019 Foru Aginduak onetsi zituen 2020ko zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen likidazioko hamabosterik behingo egutegia eta helbideratutako zerga sarreraren egutegia.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko premiazko zerga neurriak onetsi zituen eta, zehazki, 3. artikulua finkatzen zuen otsaileko eta martxoko hileko autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko borondatezko epea etetea, bai eta lehen hiruhilekoko autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatzea ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 12ko 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak onetsi zuen zerga neurri berriak hartzea COVID-19arekin lotuta. Zehazki, epe berriak ezarri ziren otsaileko, martxoko eta maiatzeko aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko.

Martxoaren 24ko 151/2020 Foru Aginduak 2019ko ekitaldiari dagozkion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitorpenak aurkezteko arauak eta modalitateak onetsi zituen. Aipatutako Foru Aginduak, 5. artikuluan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioaren ondoriozko zenbatekoa borondatez ordaintzeko epea luzatzea ezartzen zuen.

Azaldutakoari atxikiz, nahitaezkoa da eguneratzea 2020ko ekitaldiko diru sarrera fiskalerrako indarrean dagoen helbideratzeen egutegia, onetsi ondoren sortutako arau aldaketetara egokitzea.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 27ko 695/2019 Foru Agindua, onetsi zituena 2020ko zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen likidazioko hamabosterik behingo egutegia eta helbideratutako zerga sarreraren egutegia. Helbideratze egutegiko aldaketak I. eranskinean jasotzen dira.

Bigarrena. Indargabetzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren lehen epea, 2020ko ekainaren 25eko epemuga zuena; zerga horren ordainketa bakarra 2020ko azaroaren 20a izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

HELBIDERATUTAKO ZERGA DIRU SARREREN 2020KO EGUTEGIA ALDATZEA							
Kontzeptua	Aldia		Altorpenerako azken eguna	Emate eguna Helbideratzea	Zergaduna ordunpeko eguna	Eragiketen eguna eta balioa AFari ordaindutak	Agiriak eman zireneko eguna
LANEKO ERRENT.	OTSAILA		2020	2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
HIGIEZINEN ERRENT	OTSAILA		2020	2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
KAP. HIGIGARRIAREN ERRE	OTSAILA		2020	2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
ONDARE IRABAZIAK	OTSAILA		2020	2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
BEZa	OTSAILA		2020	2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
HIDROKARBURUAK	OTSAILA		2020	2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
ASEGURU PRIMAK	OTSAILA		2020	2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
EZ-EGOILIARRAK (216)	OTSAILA		2020	2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
BANKU GORDAILUAK	GARAIZ KANPO			2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
LOTERIAK	GARAIZ KANPO			2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
ELEKTRIZITATE EKOIZP	GARAIZ KANPO			2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
PFEZ	GARAIZ KANPO			2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
ONDAREA	GARAIZ KANPO			2020/6/5	2020/6/9	2020/6/10	2020/6/11
JARDUERA EKON	URTEKOA		2019	2020/10/27	2020/10/29	2020/10/30	2020/11/2
LANEKO ERRENT.	MARTXOA		2020	2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
LANEKO ERRENT.	1.	HHIL.	2020	2020/6/1	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
HIGIEZINEN ERRENT	MARTXOA		2020	2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
HIGIEZINEN ERRENT	1.	HHIL.	2020	2020/6/1	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
KAP. HIGIGARRIAREN ERRE	MARTXOA		2020	2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
KAP. HIGIGARRIAREN ERRE	1.	HHIL.	2020	2020/6/1	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
ONDARE IRABAZIAK	MARTXOA		2020	2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
ONDARE IRABAZIAK	1.	HHIL.	2020	2020/6/1	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
BEZa	MARTXOA		2020	2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
BEZa	1.	HHIL.	2020	2020/6/1	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
HIDROKARBURUAK	MARTXOA		2020	2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
HIDROKARBURUAK	1.	HHIL.	2020	2020/6/1	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
ASEGURU PRIMAK	MARTXOA		2020	2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
EZ-EGOILIARRAK (216)	1.	HHIL.	2020	2020/6/1	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
EZ-EGOILIARRAK (216)	MARTXOA		2020	2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
LOTERIAK	1.	HHIL.	2020	2020/6/1	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
BANKU GORDAILUAK	GARAIZ KANPO			2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
ELEKTRIZITATE EKOIZP	GARAIZ KANPO			2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
PFEZ	GARAIZ KANPO			2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
ONDAREA	GARAIZ KANPO			2020/6/15	2020/6/17	2020/6/18	2020/6/19
PFEZ	URTEKOA (%100)		2019	AZAROA	2020/11/18	2020/11/20	2020/11/23
LANEKO ERRENT.	MAIATZA		2020	2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
HIGIEZINEN ERRENT	MAIATZA		2020	2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
KAP. HIGIGARRIAREN ERRE	MAIATZA		2020	2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
ONDARE IRABAZIAK	MAIATZA		2020	2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
BEZa	MAIATZA		2020	2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
HIDROKARBURUAK	MAIATZA		2020	2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
ASEGURU PRIMAK	MAIATZA		2020	2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
EZ-EGOILIARRAK (216)	MAIATZA		2020	2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
BANKU GORDAILUAK	GARAIZ KANPO			2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
LOTERIAK	GARAIZ KANPO			2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
ELEKTRIZITATE EKOIZP	GARAIZ KANPO			2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
ONDAREA	GARAIZ KANPO			2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
PFEZ	GARAIZ KANPO			2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
SOZTETATEAK	GARAIZ KANPO			2020/7/6	2020/7/8	2020/7/9	2020/7/10
PFEZ	(% 40)		2019		2020/11/9	2020/11/11	2020/11/12
INDARGABETUA							